

# ALTZA! PORRU!



Euskal Herriko  
Trikitixa Elkartea

L.G.: SS-418/01

EUSKAL HERRIKO TRIKITIXA ELKARTEAREN BOLETINA

2003ko abendua / 11 zenbakia

## II. NAZIOARTEKO TRIKITIXA JAIALDIAREN OIHARTZUNA

Joan den azaroaren 22an Kursaalgo kubo txikia trikitixak bete zuten, II. Nazioarteko Trikitixa Jaialdia zela bide. Euskal Herritik kanpora ere jarri zen begira jaialdia; gogo handiz, gainera. Minhotik Irlandaraino egin zuen txangoa, eta tartean Alpeetan geldialditxo bat egiteko parada ere izan zuen. Hortaz, Portugal, Irlanda eta Frantziako soinu-jotzaileekin batera, hemengo hainbat belaunalditako trikitilariak ere igo ziren oholtza gainera. Batzuek usadio zaharrari jarraitu zioten. Gazteagoek, berriz, bide berriagoak landu zituzten. Azken batean, denen gozagarri izateko moduko jaialdia gertatu zen, arrakastatsua hein batean. Trikitixa eskoletako ikasleak, trikitilariak, jende heldua zein gaztea, hurbildu zen bertara, eta giro ezin hobea sortu zen trikitixaren aitzakian. Une hunkigarriak ere bizi ahal izan zen, jaialdiaren azken aldera batik bat; omenduen txanda etorri zenean alegia.

Esan bezala, aurten ere iazkoaren pare Kursaalak distira egin du trikitixa dela medio. Sarrera guztiak agortu baziren ere eta aretoa jendez mukuru egon, Trikitixaren Elkarteko bazkide direnietatik berrogei lagun baino ez ziren izan ikus-entzuleen artean. Kopuru urria, Kursaal ganbera aretoak seihun eta hogeita lau ikus-entzulerentzat adinako lekua duela aintzat hartuta.

Arratseko jaialdiak izan zuen, gainera, segidarik ganbera aretotik harago. Hain zuzen ere, afarian ehun eta hogeita bi lagun bildu ziren, eta afalostean giro polita izan zen. Goizeko ordu txikiak arte luzatu zen soinuaren emana. Dena den, hau guztia bertatik bertara dastatzeko aukera izan ez zuenak Euskal Telebistan ikusi ahal izango du gabon jai hauetan, abenduaren 29an, azken momentuko aldaketarik ez bada bederen.

Esanak esan, ezin aipatu gabe utzi jaialdia prestatzeko lanean aritu direnak ere. Hain zuzen ere, jaialdiaren arrakastaren zati handi bat antolatzaile lanetan jarduten duten hauen gain dagoenez, eskerrak eman nahi genizkieke lerro hauetatik era batera edo bestera lagundu duten guztiei.



*Antonio Alves Barros portugaldarra, Nazioarteko Trikitixa Jaialdian eskaini zuen piezetako bat jotzen. Kursaalgo ganbera aretoko giroa bero-bero jarri zuen mugimendu eta indarrez hornitutako bere saio biziak.*



# INPERNUKO POZA TRIKITIXAREN I. JARDUNALDIEN ARGITZALAK

## Donostia

Trikitixari buruzko jardunaldi hauetan hogeita hamar bat lagun bildu ziren batez beste. Koldo Mitxelena kulturguneko aretorako jende kopuru polita, inondik inora ere. Denetarik zegoen ikus-entzuleen artean. Hau da, trikitilari eta trikitixaren munduko jendeaz gain, beste hainbat lagun ere bildu zen bertara; betiere trikitixaz gehiago jakin eta hausnarketarako bidea jorratu nahian.



Urriaren Tean Koldo Mitxelenan egin zen "Trikitixaz zenbait gogoeta" mahai-inguruko uneetako bat. Ezkerretik hasita Laja, Iturbide, Joxe Mari Iriondo, Tiliño eta Juanmari Beltran parte-hartzaileak ikus ditzakegu. Trikitixa astinduz, berriz, Nerea eta Edurne Zendoia bikotea

## Gazteiz

Gasteizen ere, Donostiakoaren haritik, pare bat hitzaldi antolatuta zituzten Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak eta Arabako Trikitixa Elkarteak. Itziar Elkarte Etxean izan zen lehen hitzaldian, abenduaren 9an, Amagoia Iban kazetariak hartu zuen hitza, eta trikitixaren historiari gainbegiratu bat eman zion "Grafia askorik gabeko historia apur bat" hitzaldian.

Bigarren hitzaldia abenduaren 11n izan zen, Mikel Markezen eskutik. "Trikitixa, binilotik konpaktora" izeneko hitzaldia eskaini zuen musikari ezagun honek. Bai Amagoia Ibanek eta bai Mikel Markezek irailaren 30etik urriaren 3ra Donostian antolatutako jardunaldietan ere parte hartu zuten. Orain arteko lan eta argitarapenei begiratu bat ematez gain,

biek ala biekin aurrera begirako erronkak ere aztertuta zituzten beren hitzaldietan; lehena eta geroa bidelagun, orainetik abiatuta.

## Bilbo

Bilborako ere trikitixari buruzko jardunaldi interesgarriak zeuden prestatuta abenduaren 16tik 19ra, bertako musika eskolan, baina jardunaldiak bertan behera geratu ziren tamalez. Egoera triste samarra bizi izan zen jardunaldietako lehen egunean, jende faltagatik jardunaldirik ez egitera behartuta sentitu baitziren antolatzaileak. Egitarau bete-betea zegoen prestatuta okasiorako, baina ezin izan zen aurrera eraman. Hona hemen parte hartzeokoak ziren lagunaren izenak, hitzaldi eta mahai-inguruen egunen ordenari jarraiki: Amagoia Iban, Joxe Mari Iriondo, Jose Jabier Abasolo "Tiliño", Kepa Perez Urza, Ibon Koteron, Roberto Etxebarria, Mikel Markez, Jabi Navarro, Aitor Narbaiza, Sabin Bikandi eta Xabi Aburruzaga. Ezbairik gabe, trikitixaren gainean zeresan handia duen jendea.

Orain antolatzaileek gogoetagai dute nolabait ordukoan gertatutakoa eta kezka adierazi dute. Konparazio baterako, musika eskolako bertako irakasle eta ikasleak ere ez ziren jardunaldiotan parte hartzerantz animatu. Argi geratu da jardunaldi hauen oihartzuna ez dela urruti iritsi, kokalekutik bertatik hasita. Antolatzaileei erantzunik gabeko makina bat galdera otu zaizkie geroztik. Zer izan ote da honen guztiaren eragile, lekua bera? Hau da, musika eskola Bilboko erdigunetik urrun samar egotea?

Bestalde, musika tradizionala lantzen duten irakasle eta ikasleei interesatzen ote zaizkie gisa honetako ekimenak? Alegia, gai honen inguruko eztabaida eta hausnarketak zenbaterainoko interesa pizten duen ezbaian geratu da.

Ezin esan Bilbokoa esperientzia polita gertatu denik jardunaldiok buru-belarri prestatzen aritu diren lagunentzat, eta nola ez, trikitixarentzat. Edozein modutan, Bizkaian zeresan handia duen hainbat lagun biltzen ahalegin berezia egin ondoren, musika eskolakoek bertakoek ere egitaraua aurrera ateratzeko eginahal handiagoa egin izan balute, beharbada beste kuku batek joko zukeen.

# TRIKITILARI PROFESIONALEN BILERA

Aurtengo trikitilari profesionalen azken bilera izango da abenduaren 29an (astelehena) Trikitixa Elkarteak Zarautzen duen lokalean, goizeko hamaiketan. Orain arte gonbidatu hauek parte hartu dute: Ixiar Minerrek (Hator Aholkularitza), Jitu eta Zuluk (Metak disketea) eta Miguel Camposek (Madrilgo editorea). Oraingo honetan, berriz, Jose Mari

Lopez izango da gonbidatua, Dunboa musika dendakoa. Soinu bera gai hartuta, ondorengo puntu hauek landu nahi dira, besteak beste: soinuaren atalak eta horien funtzionamendua, materialak, afinazioa eta soinuaren beraren mantenua. Esan beharrik ez dago gai honen inguruan jakin-mina duen edonork parte har dezakeela bilera hauetan.



## Sakabiren eguna Azpeitian

Abenduaren 20an, Sakabi trikitilariaren eguna zela medio, egun osoan ibili ziren trikitilariak Azpeitian soinua joz, bertako kaleak alaitzeko eginkizuna beren gain hartuta. Eguerdiko hamabietan, gainera, Iñigo Aranbarrik Sakabiri buruz egindako liburua, "Sakabi, soinu txikiaren handitasuna", aurkeztu zuen Aitonengan; honezkero aurkezpenik behar ez duen liburua; Durangoko Azokan hasita, hainbat liburutegitan baitago salmentan. Ekimen hau Azpeitiko Udalak eta Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak antolatu zuten. Iñigo Aranbarrik gain, Imuntzo (Sakabiren ikaslea) eta Azpeitiko Udaleko kultur zinegotzia ere izan ziren bertan.



*Abenduaren 20an Azpeitiko Aitonengan egin zen ekitaldiko argazkia dugu hau, bertan, ezkerrean Sakabiren semea Antton, erdian Pantxike emaztea eta eskuinean Itziar, alaba.*

## Durangoko azokari begira

Trikitixa Elkarteak hirugarren aldiz parte hartu du Durangoko Azokan, abenduaren 5etik 8ra, eta aurrean ere lan faltarik ez da izan. Durangon izan den jende andana tarteko, aurreko urteetan baino salmenta handiagoa izan da aurtengo edizioan. Gehiena saldu diren ekoizpenen artean legoke Trikitixa Elkarteak berak 2004rako ateratako egutegia, arrakasta handia izan duena. Hain zuzen ere, Altxaporrú! honen azken orrialdean ikus dezakegu egutegian azaltzen den argazki zaharra, Mario Serranok utzia, garai bateko trikitilarien talde handi samarra biltzen duena. Bestalde, Iñigo Aranbarrik Sakabiri buruz egindako liburua ere tamainan saldu da Durangon.

## Etorriko dira berriak

### **Pedro Artiñano Arozena "Aldai" (1922-2003)**

Pedro Artiñano soinu-jotzailea, askorentzat "Aldai" izenez ezagunagoa zena, joan den azaroan zendu zen, 81 urte zituela. Zeberrioko Elorriaga baserriko semea, 12 urterekin ekin zion bere kasa soinua ikasteari, eta geroago Joakintxu Gutti Zeberrikoarengana joaten hasi zen; harengandik ere soinuaren gaineko jakituria oro bereganatzeko asmoz. Handik urte batzuetara, berriz, soinu handia ikasten hasi zen, eta eginkizun honetan Artxandako Celes Rodríguez izan zuen maisu.

Pandero-jotzaile lanetan bere anaiak, Maturanak edo herriko beste edonork laguntzen zion. Urte batzuetan soinua utzita egon bazen ere, berriz animatu zen Tiliñok antolatutako lurretako omenaldietan parte hartzera. Soinua lagun, hainbat erromeriatan ibilitakoa dugu Pedro Artiñano "Aldai", betiere pieza dantzagarriak joz.

### **Eusebio Rueda Esposito "Eusebito" (1925-2003)**

Eusebio Rueda Esposito "Eusebito" pandero-jotzailea Sopelako Larrabasterra auzoan jaio zen 1925ean. Rufino Arrola soinu-jotzailearen pandero-lagun urte askoan jardun zuen batetik bestera. Rufino Arrolarekin ez ezik, Kepa Arrizabalagarekin ere aritu zen, ordea, hirukotea osatuz.

Itsasgizona zen ofizioz, kostaldekoa izaki, eta panderoaren doinua Ameriketara ere zabaldu zuen; paraje haietan ere ibilia baita panderoa jotzen. Eusebito 78 urterekin zendu zen, abenduaren 8an, urtearen azken hondarrean. Pandero-jotzaile handi hau trikitizaleen artean ezagun zen oso, eta baita Uribe Kostako bertsozaleen artean ere. Trikitixa eta bertsolaritza elkarrengandik oso urrun ibili ez diren seinale.



*Eusebio Rueda eta Rufino Arrolak bikote fina osatzen zuten, eta hamaika pieza jotakoak dira elkarrekin, erromeriaz erromeria*



# HAUSPO ZAHARRAK



Azpeitian Gelatxori egindako omenaldian, 1947. urtean, hainbat trikitilari bildu ziren, zitarako propio atonduta. Goian ezkerretik hasita, Leandro Unzeta, Madarixa Txikia, Boni Iturbide, Arbe, Mario Serrano, Joxe Mari Iturbide eta Otola ikus ditzakegu, hurrenez hurren. Eserita, berriz, beste sei gizon, Gelatxo bera kasu: Sakabi, Kandido Beristain (aita), Patxi Iturbide, Manuel Sodupe Gelatxo, Migel Iturbide eta Auntxa alegia. Urteen joanaren lekuko, Mario Serrano eta Otola baino ez daude bizirik egun. Argazki dotorea inolaz ere, Durangora bertaratuakoen hain gustuko izan den egutegian ikus daitekeena. Zer hoberik trikitixak emandako uzta oparo bati omenaldia egiteko.

## KALEJIRAN

### • Kepa Junkera, zuzeneko diskotik zuzeneko DVDra

Uztailaren hasieran kaleratu zuen K zuzeneko diskoa, Arriaga antzokian martxoan prestaturiko emanaldien emaitza, eta abenduan, berriz, K izeneko DVDa kaleratu du. Musika eta irudi ezagunekin bi ordutik gorako produktu digitala prestatu du musikari bilbotarrak. K diskoari buruzko informazioa biltzen du DVDak, euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez zein frantsesez. Horrezaz gain, Arriaga antzokiko grabazioko argazkiak, Junkeraren beraren biografia zein diskrografia eta "Herrik Shaw" bideoklipa ere jasotzen ditu azken lan honek. Guztira hiru ordu eta erdiko grabazioa, zuzeneko kontzertuaren 120 minutuk gehi gainerakoaren 94 minutuk osatzen dutena.

## GALBAHEA

### Kepa Junkera (Aizu!, 260.znb., 2001-IX)

"Inoiz ez dut pieza bera berdin jotzen. Nahiago dut inprobisatu, erritmoarekin jolastu. Musikak bizitza propioa behar du, inguru eta entzulearen arabera".

### Laja (Maxixatzen, 96. znb., 2003-IV)

"Nik normalin erromeitan sekulan ez det eukitzen kezkaik. Neretzako gogorrena izen da beti konkurso mailan jotzie, responsabilidadie haundiye izetea ta. Bestela ez, erromeitan ta ez. Normalin oso ondo. Oso politte da erromei girue. Gu garai baten ikaragarri ibiltzen giñen ta haure pixket nekosue zan. Nik ta Landakandak urtik pasau dittou etxetik erten 11etan, 12tan auzo baten jotzeko ta 4retan eo 5etan bueltau. 18 ordu!".

### Maidor Zabaltegi (Hitza, 2003-VII-10)

"Plaza-giroa gutxitzen ari da. Jendeak taberna girora gehiago jotzen du, giro antisozialagora. Azken finean musikak etapa ezberdinak izaten ditu eta badirudi beste musika estilo batzuk nagusitu direla".

### Joe Burke Irkandako soinu-jotzailea (Berria, 2003-XI-21)

"Urte hauetan musikaren eta akordeoia alderdi asko deskubritu ditut. Mundu osoan ibili naiz, eta leku guztietan ezagutu dut gure tradizioari atxikitzeko modukorik. Musikaren dialekto desberdinak ezagutzuz joan naiz, nire hizkuntza osatzeko".

### Joxe Mari Iriondo (Irutxulo, XII-5)

"Gaurko trikitixak ez du zerikusirik garai batekoarekin. Gaur egun ikusteko eta entzuteko jotzen da, eta ez dago dantza egiterik. Nolabait, dantza suelta galtzen ari da, eta, beraz, trikitixaren zati bat galtzeko arriskua dago".